

Hitzaldia: Historia klinikoa euskaraz: beharra eta eskubidea

Historia klinikoa euskaraz lortzeko pausoak: ebidentzia zientifikoa

Steps to wards a Basque Clinical History: scientific evidence

Adrian Unai Zelaia Arieta-Araunabeña

Osakidetza, Debarrena ESI

adrianunai.zelaiaarietaraunabena@osakidetza.eus

1. Aurrekariak

Pazienteen historia klinikoaren hizkuntza-aferra garrantzitsua izan ohi da lantokiko hizkuntza hegemonikoaren eta pazientearen hizkuntza parekotasuna falta den egoeretan. Hala nola, migranteen edo hizkuntza minorizatuen kasuan. Euskara hizkuntza ofiziala izan arren Euskal Herriko zati batean, zergatik eta paziente horientzako euskarazko historia klinikoa nola lortu beharko litzatekeen (edo nola ez) planteatu beharra dago. Oraingoz, mahai gainean eztabaidan dauden tresnak hizkuntza eskakizunak, zirkuitu elebidunak eta itzultzaile automatikoak dira.

Itzultzaile automatikoen zein gainerako erabilerari buruz existitzen den ebidentzia ebaluatzea eta historia klinikoa euskaraz lortzeko pauso eraginkorrek proposatzea da lan honen helburua.

2. Metodoak

Osasun-sistemetan itzultzaile automatikoen erabilerak ebaluatzen dituzten ikerketen bilaketan oinarritutako errebisioa, EAEko euskarazko arreta-eskaera eta hizkuntza-eskakizunen datu ofizialak erabili ditugu.

3. Emaitzak

Osasun-arloko komunikazioaren goldstandard-a hizkuntza parekotasuna da. Ez da itzultzaile automatikoetan soilik oinarrituriko egoera kliniko bat ezartzen, eta beren egokitasuna eta erabilgarritasuna beste inongo tresnarik ez dagoen aldietara mugatzen dute. Zirkuitu elebidunek esparru oso txikietan eta modu kontra-hegemonikoan euskarazko arreta orientatu arren, oraindik berauen estandarizazioa eta idatzizko ezarpena ez da eman.

4. Eztabaida

Itzulpen automatikoa ez daiteke gaitasun edota segurtasun kulturalaren estandarretan barnebildu, azken aukera gisa baino. Egun Osakidetzan dauden hizkuntza-eskakizunek ez dute euskarazko arreta eta historia klinikoa euskaraz bermatzen. Hizkuntza-eskakizunen areagotze edo unibertsalizazioa litzateke itxuraz pauso eraginkorrena. bai historia klinikoa. bai arreta euskaraz ziurtatzeko berme bakarra. Bien bitartean, zirkuitu elebidunak alternatiba izan daitezke historia klinikoa euskaraz txertatzen hasteko.

Adrian Unai Zelaia Arieta-Araunabeña

5. Ondorioak

Itzultzaile automatikoek ez dute osasun-arretan beren kontura ezartzeko eraginkortasun, zehaztasun edo egokitasunik erakutsi. Hizkuntza-mugak direla eta, egungo goldstandard-ahizkuntza-parekotasuna da itzulpena baino.

6. Bibliografia

1. Zelaia A., Torrontegi U., Montes A. Itzultzaile automatikoak osasun-arretan: azterketa bibliografikoa. Osagaiz. 2021 – 5. bolumena – 1. zk.- 68.
<http://doi.org/10.26876/osagaiz.1.2021.352>
2. Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana 2022 – 2028. Debarrena ESIko 2024 Urteko Kudeaketa Plana (UKP)